

| EGUNEKO BAJA



LAGUN ARO

BALDINTZA OROKOR HAUEK (FP9401 / 04 Berrik.), BALDINTZA PARTIKULARREKIN, BALDINTZA BEREZIEKIN ETA GALDE-SORTAREN ESKAERAREKIN BATERA, ASEGURU-KONTRATUA OSATZEN DUTE.

Aseguru-poliza Lagun Aro Autonomoen Eguneko Baja

Baldintza Orokorrak

pm
la previsión mallorquina de seguros, s.a.


LAGUN ARO

AURKIBIDEA

LEGE-INFORMAZIOA	07
Non erreklamatu	07
ASEGURUAREN OINARRIZKO DEFINIZIOAK	09
HAUTAZKO BERME NAGUSIAK EDO ELKARREKIN KONTRATATZEKO BATERAEZINAK DIRENAK	11
Gaixotasunagatiko eta istripuagatiko eguneko sorospena	11
Gaixotasunagatik soilik sortutako eguneko sorospena	11
ASEGURUAREN OBJEKTUA: ESTALDURAREN NORAINOKOA	12
Estalitako arriskua	12
Frankizia	12
Eguneko sorospenaren sortzapenerako aplikatu daitezkeen arauak	12
ESTALDURA MUGATUKO KASU BEREZIAK	14
KANPOAN UTZITAKO ARRISKUAK	15
AUKERAKO BERME OSAGARRIA	16
ASEGURUAREN OBJEKTUA: ESTALDURAREN NORAINOKOA	17
Estalitako arriskua	17
Eguneko sorospenaren sortzapenerako aplikatu daitezkeen arauak	17
KANPOAN UTZITAKO ARRISKUAK	18
NOLA JOKATU EZBEHARRA GERTATUTAKOAN	19
Betebeharrak	19

Aurkeztu beharreko dokumentazioa	19
KALTE-ORDAINEN IZAPIDETZEA ETA ORDAINKETA	21
Ikuskapen-bisitak	21
Sorospenaren sortzapena	21
Kalte-ordainen ordainketa	21
Peritu-prozedura	21
POLIZAREN OINARRIZKO ARAUDIA	23
Aseguruaren oinarriak	23
Aseguruaren hasiera eta iraupena	23
Kontratua deuseztatzea eta eskubideak galtzea	24
Primen ordainketa	24
Arriskuaren aldaketak	25
Helbide-aldaketak	27
Eguneko sorospenaren errebalorizazioa	27
Aseguruaren konkurrentzia	27
Jakinarazpenak	27
Jurisdikzioa	28
Datu pertsonalen babesa	28
EZOHIKO GERTAKARIEN ONDORIOZKO GALERENGATIK ASEGRATUEN KONPENTSAZIO PARTZUERGOAREN KALTE-ORDAINEN KLAUSULA PERTSONA-ASEGURUETAN	30
I. LEGE-ARAUEN LABURPENA	30
1. Estaltzen diren ezohiko gertakariak	30
2. Kanpoan utzitako arriskuak	31
3. Estalduraren hedadura	32
II. KALTEEN BERRI EMATEA ASEGRUEN KONPENTSAZIO PARTZUERGOARI	32
Telefono interesgarriak	33
Oharrak	34



LEGE-INFORMAZIOA

Hauek dira kontratu hau arautzen duten legeak eta xedapenak: Aseguru Kontratuen urriaren 8ko 50/1980 Legeak, Aseguru Etxeen eta Berraseguratzaileen antolaketa, ikuskatze eta kaudimeneko uztailaren 14ko 20/2015 Legeak, haren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 20ko 2486/98 Errege Dekretuak, eta Xedapen hauek garatzeko gainerako araudiak, baita Baldintza Orokor eta Partikularretan hitzartutakoak eta, hala dagokionean, kontratu-aseguruaren baldintza berezietakoak ere bai. Aseguratuen eskubideak mugatzen dituzten klausulak ez dira baliozkoak izango, idatziz berariaz onartzen ez badira, hala ere, onarpen hori ez da beharrezkoa legezko arauen transkripzio edo erreferentzia hutsak dituzten klausulak direnean.

La Previsión Mallorquina de Seguros, S.A. da erakunde aseguratzailea, Bartzelonako Merkataritza Erregistroan inskribatutakoa, 34.346 liburukian, 13. folioan, B-13.071 orrian A-08-169013 IFKrekin, eta honako helbide soziala eta helbide orokorra dituena: Aribau kalea, 168-170, Solairuartea 1.a, Bartzelona-08036.

Aseguratzailearen jarduera kontrolatzea dagokion agintaritza Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusia da, Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren mendekoa.

NON ERREKLAMATU

Auzirik sortuz gero, **lehenik eta behin**, Aseguruaren Hartzaileak hona jo dezake:

- La Previsora Mallorquina de Seguros, S.A.
Servicio de Atención al Cliente
C/ Aribau 168-170, Entlo 1ª .
08036 Barcelona

Bigarrenik, eta adostasun ezak badirau, kanpoko esparruan, idazkia hona bidaliz:

- Dirección General de Seguros y Fondos de Pensiones
Servicio de Reclamaciones
Paseo de la Castellana, 44
28046 MADRID
www.dgsfp.mineco.es

Erreklamazioak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Erreklamazio Zerbitzuaren aurrean onar eta izapide daitezzen, ezinbestekoa izango da aurretiaz egin izana frogatzea, idatziz, La Previsión Mallorquina de Seguros, S.A.ren Bezeroaren Arreta-Zerbitzuari. Honek aurkeztu zaizkion erreklamazioak hartu izanaren berri eman beharko du idazki bidez, eta arrazoiturik konpondu edo ukatu beharko ditu erreklamazioak, idazki bidez hori ere. Halaber, erreklamatzailerak erreklamazioa aurkeztu zuen dataz geroztik erreklamazioa konpondu gabe bi hilabete pasatu direla frogatu behar izango du, edo erreklamazioa onartzeari uko egin zaiola edo bere eskaera ezetsi dela.

Edonola ere, beti izango du epaitegi eta justizia auzitegi arruntetara jotzeko aukera.

ASEGURUAREN OINARRIZKO DEFINIZIOAK

Aseguru Etxea. La Previsión Mallorquina de Seguros, S.A., polizaren erakunde jaulkitzailea, Aseguratzaile gisa, eta prima kobratuta, kontratu honen objektu diren arriskuen estaldura bere gain hartzen duena, polizako baldintzen arabera.

Aseguruaren Hartzailea. Kontratu hau sinatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa, eta hortik sortzen diren betebeharrak, eta bereziki adostutako prima ordaintzearena, bere gain hartu beharko dituen, espresuki Aseguratuari eta/edo Onuradunari dagozkionak izan ezik.

Aseguratuak. Arriskupean dagoen eta aseguru ezartzen zaion interesaren titularra, hala dagokionean, kontratutik sortutako eskubideak hartzen dituena. Aseguratuak bere gain har ditzake aseguruaren Hartzailearen obligazioak eta eginbeharrak.

Onuraduna. Pertsona fisiko edo juridikoa, aseguruaren Hartzaileak edo, bere kasuan, Aseguratuak, poliza honetan bermatutako sorospena, dagokion zenbatekoan, jasotzeko eskubidea aitortzen diona.

Poliza edo aseguru-kontratuak. Aseguru Etxearen eta aseguruaren Hartzailearen artean hitzartutako baldintzak jasotzen dituen dokumentua, honako hauek osatutakoa: Baldintza Orokorrak (aseguruaren oinarrizko alderdiak eta alderdi orokorrak jasotzen dituztenak), Baldintza Partikularrak (Hartzaile bakoitzarentzat Baldintza Orokorrak osatu edo aldatzen dituzten alderdi espezifiko eta indibidualizatuak jasotzen dituztenak) eta, kontratatzen badira, baita Baldintza Bereziak eta Osagarri edo Eranskinak ere (Baldintza Orokorren ondorengo aldaketak edo osagarriak xedatzen dituztenak).

Prima. Aseguruaren kontraprestazio gisa Aseguru Etxeari ordaintzen zaion dirukopurua, hau da, aseguruaren prezioa. Primaren zenbatekoa ordainagirian adierazten da, aseguruaren Hartzaileari legez jasanaraz dakizkiokeen zergak, tributuak eta errekaruak barne.

Frankizia. Aseguru frankizia-aldiarekin kontratatu ahal izango da. Eguneko sortzapenik sortzen ez den ezbeharraren hasierako aldia da frankizia. Behin aldi hori amaitutakoan, kontratatutako eguneko sorospenaren sortzapena hasiko da **estaldura-aldia** osatzen duen bermatutako gehienezko epea agortu arte. Aldi horiek polizako Baldintza Partikularretan jasoko dira.

Estaldura-aldia. Ezbearra izaten denean Aseguru Etxeak bermatutako kontratatutako eguneko sorospenak sortuko diren gehienezko epea.

Gabealdia. Kontratua formalizatutako datatik eta hitzartutako estaldura indarrean jartzen den arte igarotako denbora.

Ospitaleratzea. Aseguratua osasun-zentro, klinika edo ospitale batean paziente gisa hogeita lau ordu edo gehiagoko aldi batez egotea.

Osasun-zentroa, klinika edo ospitalea. Gaixoak edo istripuren bat izandako pertsonak paziente gisa tratatzeko xedez legez eratutako establezimenduak. Horretarako, ezinbesteko baldintza izango da establezimendu horiek eguneko 24 orduetan medikuntzako eta erizaintzako zerbitzuak izatea, bai eta diagnostikatzeko eta ebakuntza kirurgikoak egiteko beharrezkoak diren tresna teknikoak ere.

HAUTAZKO BERME NAGUSIAK EDO ELKARREKIN KONTRATATZEKO BATERAEZINAK DIRENAK

- ▶ Gaixotasunagatiko eta istripuagatiko eguneko sorospena
- ▶ Gaixotasunagatik soilik sortutako eguneko sorospena

ASEGURUAREN OBJEKTUA: ESTALDURAREN NORAINOKOA

Estalitako arriskua



Kontratu honen bidez, eta Baldintza Orokor hauetan araututakoaren arabera, Asegurazailea behartuta dago Baldintza Partikularretan jasotako eguneko sorospenaren sortzapena bermatzera hirurehun eta hirurogeita bost eguneko gehieneko epean, gaixotasun edota istripu baten ondorioz bere osasun-egoeraren aldaketak Aseguratuari eragin eta bere lan-jarduera edo jarduera profesionala aldi batez ERABAT eten behar izaten duenean.

Aseguruaren estaldura gaixotasunak soilik eragindako osasun-egoeraren alterazioetarako soilik ere kontrata daiteke, eta aukera hori polizako Baldintza Partikularretan jasoko da.

Frankizia

Asegurua frankizia-aldiarekin kontrata daiteke. Aldi hori Baldintza Partikularretan jasota egongo da, eta amaitutakoan, kontratatutako eguneko sorospenaren sortzapena hasiko da estaldura-aldia osatzen duen bermatutako gehienezko epea agortu arte.

Eguneko sorospenaren sortzapenerako aplikatu daitezkeen arauak

→ Ezbeharraren definizioa eta norainokoa

Kontratu honen ondorioetarako, ezbeharraren definizioak eta norainokoak ez du zerikusirik eta ez die jarraitzen sistema publikoaren definizio- eta kalifikazio-irizpide beraiei. Horregatik, aseguru-kontratu honek soilik definitu eta zehazten du ezbeharraren kalifikazioa.

→ Laguntza medikoa eta tratamendu mediko jarraitua

Gaixotasun edo istripu guztietan, Aseguratuak laguntza medikoa jaso beharko du, baita prozesua sendatzeko beharrezko tratamendu medikoa ere era jarraituan. Hortaz, kontratu honen ondorioetarako, eguneko sorospen-saria ez da jasoko, Aseguratuak behar duen tratamendu medikoa jaso arte itxaron-zerrendan baldin badago.

→ Aldi baterako lanerako desgaiakuntza osoa

Osasun-egoeraren alterazioak lan-jarduera edo jarduera profesionala garatzea ERABAT galarazi beharko dio Aseguratuari aldi baterako, eta arrazoia klinikoki azaldu ahal izan beharko da.

Zer kasutan amaitzen den eguneko sorospenen sortzapenerako eskubidea

- ▶ Aseguratuak bere ohiko jarduera profesionali edo lan-jardueri berriz heldu diezaiekeenean, ERA PARTZIALEAN BADA ERE, nahiz eta oraindik erabat sendatu ez.
- ▶ Aseguratuak jasandako ezbeharrak eragindako gaixotasuna edo istripua polizako Baldintza Partikularretan adierazitako lan-jarduera edo jarduera profesionala egiteko baliaezintasun iraunkor bihurtu dela mediku bidez frogatu daitekeenean.
- ▶ Kontratututako gehieneko estaldura-aldia agortu delako.

→ Estalduraren gehieneko epea

Aseguratuaren osasun-egoeraren alterazioengatik eguneko sorospenak sortutako egunen batura, alterazioak edozein arrazoiengatik prozesu berak eragin edota sortutakoak direnean, ezingo du izan 365 egunetik gorakoa, Baldintza Partikularretan jasotako frankizia-aldia barne.

Aseguratuak gehieneko estaldura-aldia agortu badu, jarraian edo hainbat alditan osasun oneko tarteekin, eta prozesu beragatik edo harekin zerikusia duten arrazoiengatik ezbehar berri bat hasten bada, aurrekoaren luzapentzat hartuko da ondorio guztietarako. Kasu horietan, kontsumitutako aldi guztien baturak ezingo du gainditu gehieneko estaldura-epea. Aurrekoa ezingo da aplikatu baldin eta azken ezbeharreko alta-datatik hurrengo baja-datara bitartean 12 hilabete pasatu badira.

→ Gehieneko estaldura-epea eta eguneko sorospenaren zenbatekoa

Aseguratzailerak ordaindu beharreko eguneko sorospenaren zenbatekoa Baldintza Partikularretan adierazitakoa izango da, baita Aseguratuak **hainbat gaixotasun edo istripu aldi berean izango balitu edo hasieran deklaraturakoaren edo deklaraturakoaren ibilbide klinikoaren ondorioz beste gaixotasun edo istripu bat sortuko balitz ere.**

Kasu horretan, Hartzailea, Aseguratua edo Onuraduna behartuta daude Aseguratzailari mediku-txostena bidaltzera, gorabehera horren berri emanaz. Gaixotasun edo istripu berriaren kausa **aurretik deklaratuakoarekin edo deklaratuakoekin zerikusirik ez duen** prozesu bat izango balitz, azken gaixotasuna edo istripua hasitako datatik hasiko litzateke kontaktzen epe berria.

KASU BEREZIAK:

Orokorrean ezarritako gehieneko epera mugatutako estaldura-aldiak dituzten kasu bereziak

▶ HAURDUNALDIA

Aseguratuak jasandako gaixotasunaren edo istripuaren lehen kausa haurdunaldia denean, Aseguratzailak bermatzen duen gehieneko estaldura-epea 45 egunera MUGATUTA dago aseguru-kontratuaren urtaldi bererako eta, hala dagokionean, kontratatutako frankizia-egunak kenduko dira. Edozein kasutan, prestazioaren sortzapenerako eskubidea haur baten edo gehiagoren erditzea edo zesarea gertatzen den egun berean bukatuko da, baita Aseguratua erabat sendatu ez bada ere. Prestazioak 12 hilabeteko GABEALDIA edo estaldura-gabezia izango du poliza indarrean sartzen den datatik kontaktzen hasita, edo, hala dagokionean, zenbateko aseguruaren igoeraren gainean aldaketaren efektu-datatik kontaktzen hasita. Ez da estalduraren objektu izango haurdunaldiko arrisku-egoera soila.

▶ ERDITZEA edo ZESAREA

Aseguratuak jasandako gaixotasunaren edo istripuaren kausa edo arrazoi primarioa haur baten edo gehiagoren erditzea edo zesarea denean, kontratatutako eguneko sorospenaren 20 eguni dagokion kalte-ordain bakarraren sortzapena bermatzen da. Eta haren ondorioz gaixotasunak sortuko balira, prestazioa beste 25 egunetan luzatuko da gehienez ere. Dena den, bi kontzeptuen baturarako gehieneko estaldura-aldia 45 egunera MUGATUKO da. Prestazioak 12 hilabeteko GABEALDIA edo estaldura-gabezia izango du poliza indarrean sartzen den datatik kontaktzen hasita, edo, hala dagokionean, zenbateko aseguruaren igoeraren gainean aldaketaren efektu-datatik kontaktzen hasita.

▶ GAIXOTASUN eta/edo NAHASTE MENTALA eta PORTAERAZKO GAIXOTASUNA

Aseguratuak jasandako gaixotasunaren edo istripuaren arrazoi edo kausa primarioa ospitaletan eta/edo osasun-egoitzetan psikiatriako sail batean etengabe egotera behartzen duen gaixotasun eta/edo nahaste mentala edo portaerazko gaixotasuna denean, aseguratzailak bermatzen duen gehieneko estaldura-aldia 90 egunera MUGATUTA geratzen da kontratuaren urtaldi bererako eta, hala dagokionean, kontratatutako frankizia-egunak kenduko dira.

Kanpoan utzitako arriskuak



HONAKO ARRISKU HAUEK EZ DIRA KONTRATU HONEN ESTALDURAREN XEDE:

- Aseguratzailleak zerbitzu medikoak eta kirurgikoak zuzenean ematea eta mediku- eta farmazia-laguntzako gastuak ordaintzea.
- Poliza hau jaulki baino lehenagoko osasun-egoeraren alterazio, kronikoak izan edo ez, lesio edo akats guztiak.
- Osasun-egoeraren alterazio guztiak, ondorengo kausek eragindakoak: gerra zibilak edo nazioartekoak, energia atomiko edo nuklearraren ondoriozkoak, baldin eta tratamendu mediko baten ondorioa ez badira, ofizialki deklaraturako epidemiak eta ofizialki hondamenezkotzat deklaraturako arrisku guztiak.
- Modu profesionalean egindako edozein kiroletan sortutako gaixotasunak edo istripuak.
- Edari alkoholikoak edateak, toxikomaniak edo suizidio-ahaleginak eragindako gaixotasunak edo istripuak.
- Aseguratuak bere borondatez jasotako mediku-ekintzek edo tratamenduek eragindako osasun-egoeraren alterazio guztiak, baldin eta horien arrazoi edo kausa primarioa gaixotasuna edo istripua ez bada.
- Hartutako Immunoeskasiaren Sindromea (HIES) eta/edo Giza Immunoeskasiaren Birusak (GIB) eragindako gaixotasunak.
- Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Sindromea.
- Abortua.
- Gaixotasun eta/edo nahaste mentalak eta portaerazko gaixotasunak, Aseguratu ospitaleetako edota osasun-egoitzetako psikiatria-sailetan etengabe ingresatuta egotera behartzen ez dutenak. Estresak eragindako gaixotasun edota nahaste guztiak ere estalduratik kanpo geratzen dira.
- KANPOAN UTZITAKO ARRISKUAK izango dira, gainera, atal honetan aurrez deskribaturako arrisku guztien larriagotzeak, sekuelak, ondorioak eta/do konplikazioak eta baita horien tratamendu espezifikokoak ere.

AUKERAKO BERME OSAGARRIA

- ▶ Gaixotasunagatik eta istripuagatik ospitaleratzea

ASEGURUAREN OBJEKTUA: ESTALDURAREN NORAINOKOA

Estalitako arriskua



Hartzaileak estaldura hori kontratatzen badu, Aseguratuak hirurehun eta hirurogeita bost eguneko gehieneko epean bermatuko du estaldura honetarako Baldintza Partikularretan jasotako eguneko sorospenen sortzapena, Aseguratuak, Baldintza Orokorretan edota Partikularretan kanpoan utzita ez dagoen edozein arrazoiengatik osasun-zentro, klinika edo ospitale batean paziente gisa eta etengabe ingratua egongo den egun bakoitzeko.

Eguneko sorospenen sortzapenerako aplikatzen daitezkeen arauak

→ Informazioa emateko betebeharra

Sorospenen iraupena ezartzeko xedez, Aseguratuak osasun-zentro, klinika edo ospitaleko alta-txostena eta ospitaleratzearen kausa eta iraupena egiaztatzen dituen osasun-zentro, klinika edo ospitaleko zuzendaritzak edo administrazioak egindako aitortpena aurkeztu beharko ditu, sarrerako eta irteerako orduak adieraziz.

Ospitaleratze-eguna kontuan hartuko da sorospenen iraupena zehazteko, baina ez ospitaleko alta-eguna. Aseguratuak ez du izango berme horretarako kontratatutako sorospenen sortzapenerako eskubiderik.

→ Erditzeagatiko ospitaleratzea

Erditzeagatik ospitaleratutako kasuetan, Baldintza Partikularretan estaldura horretarako ezarritako eguneko sorospenen ordainketa **erditze-egunetik hasi eta zazpi eguneko gehieneko epean SOILIK** luzatuko da.

Edozein kasutan, erditzearen **baliokideak** izango dira **zesarea** bidezko erditzeak.

Kasu horietarako **hogeita lau hilabeteko GABEALDIA** edo estaldura-gabezia ezarri da kontratazio-datatik kontaktzen hasita.

Kanpoan utzitako arriskuak



EZ DUTE ESTALDURARIK HONAKO ARRAZOI HAUENGATIKO OSPITALERATZEEK:

→ Baldintza Orokor hauetako dagokien atalean lehen deskribatutako eta gaixotasun eta/edo istripuagatiko eguneko sorospeneko estaldura nagusirako kanpoan utzitako arrisku guztiak.

→ Babes-etxe, geriatriko, bainuetxe eta atsedeneko erietxeetan egindako aldizkako azterketa edo tratamendu medikoak, txekoak eta egonaldiak, gaixotasun eta nahaste mentalen tratamenduak, errehabilitaziokoak edo euren jardueran lehen aipaturikoen antzekoak direnak.

→ Kirurgia plastikoa edo konpontzailea, baldin eta polizaren indarraldian gertatutako istripu baten ondorioz eta egindako kaltea sendatzeko beharrezkoa ez bada.

→ Argaltzeko tratamenduak, bi sexuen antzutzek, "in vitro" ernalketa eta intseminazio artifiziala.

→ Haurdunaldia

NOLA JOKATU EZBEHARRA GERTATUTAKOAN

Betebeharrak

Ezbeharra gertatuz gero, aseguruaren Hartzailera eta, bere kasuan, Aseguratua edo Onuraduna behartuta daude:

- ▶ Aseguratzaileri ezbeharraren **berri ematera**, hura gertatu eta **zazpi eguneko epean**. Ezbeharraren zirkunstantzia eta ondorioei buruz Aseguratzailerek eskatutako informazio guztia eman beharko dio.
Hartzailera eta/edo Aseguratuak betebeharrak hori urratzen badu, kalte-ordainerako eskubidea galduko du doloa edo erru larria egon bada.
- ▶ **Ezbeharraren ondorioak arintzera**, Aseguratua lehenbailehen suspertzeko eskura dituen baliabide guztiak erabiliz.
Ezbeharra luzatuta Aseguratzailera kaltetzeko asmo garbiarekin Aseguratuak betebeharrak hori ez betetzeak ezbeharraren ondoriozko prestazio orotatik libre utziko du Aseguratzailera.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eguneko sorospenen sortzapenen ondorioetarako kontratu honek estalitako ezbeharraren kasuan, Aseguratuak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu behar bezala beteta:

- ▶ **Ezbeharr-deklarazioa edo -partea**, eskatutakoan Aseguratzailera edo polizaren kontratazioan parte hartu duen aseguru-artekariak emango duen inprimakia. Parte horren atal guztiak bete behar dira, eta ezinbestekoa da gaixotasunari edo istripuari buruzko atala pazienteaz arduratzen den medikuak bete eta sinatzea.
- ▶ Aipaturiko inprimakiaren **faltan**, Aseguratzaileri ezbeharraren berri emateko honako **datu hauek jasotzen dituen idazkia** baliatuko da: poliza-zenbakia, Hartzailerearen izena, Aseguratuaren izen-abizenak, adina eta helbidea. Aipaturiko idazkiari pazienteaz arduratu den medikuaren txostena erantsi behar zaio, honako hauek adieraziz: gaixotasuna edota istripua eta bere kausak; etxean atsedenaldira absolutua edo atsedenaldira erlatiboa egiten duen; ondoez bera aurretik izan duen eta zer datatan; ondoezak bere

lan-jardueretan edo jarduera profesionaletan aritzea erabat edo partzialki galarazten dion; prozesuaren hasieraren data probablea; laguntza ematen hasitako data; ondoezaren iraupenari buruzko pronostikoa eta, azkenik, txostena egindako data.

- ▶ **OSPITALERATZE bermerako**, sorospenen iraupena ezartzeko ondorioetarako, Aseguratuak **osasan-zentro, klinika edo ospitaleko alta-txostena eta ospitaleratzearen kausa eta iraupena egiaztatzen dituen osasan-zentro, klinika edo ospitaleko zuzendaritzak edo administrazioak egindako aitortpena aurkeztu beharko ditu, sarrerako eta irteerako orduak adieraziz.**

KALTE-ORDAINEN IZAPIDETZEA ETA ORDAINKETA

Ikuskapen-bisitak

Behin ezbehar-deklarazioa jasota, Aseguratzailleak komenigarritzat jotzen dituen ikuskapen-bisitak antolatu ahal izango ditu Aseguratuaren osasun-egoera egiaztatzeko, baldin eta gaixoa artatzen duen medikuren batek kontra egiten ez badu, eta ezbeharra behar den bezala baloratzeko beharrezkotzat jotzen dituen mediku-txostenak eskatu ahal izango dizkio.

Sorospenaren sortzapena

SOROSPENAK EZBEHARRA HASITAKO EGUN BERETIK SORTUKO DIRA, BALDIN ETA EZBEHARRA ZAZPI EGUNEKO GEHIENEO EPEAREN BARRUAN JAKINARAZTEN BAZAIO ASEGURATZAILARI, LEGEKO 16. ARTIKULUAN AURREIKUSTEN DEN BEZALA.

Ezbehar-deklarazioa gehieneko epea pasatu ondoren jasotzen bada, Aseguratzailleak deklarazioa jaso duen datatik hasiko da Aseguratuaren sorospenak sortzen.

Kalte-ordainen ordainketa

Aseguratzailleak poliza honengatik zor dituen diru-kopuruak dagokion Onuradunari ordainduko zaizkio, Aseguratzailleak **kontratu honen ondorioetarako** Aseguratuaren altaren berri izandako dataren ondorengo zortzi egunen barruan. Aseguratuak dagokion ordainagiria edo kitatze-agiria sinatu beharko du. **Aseguratuak alta hartzen duen egunean ez du eguneko sorospenik sortuko.**

Ezbeharra gertatu eta hiru hilabeteko epean Aseguratzailleak zenbateko osoa ordaindu ez badu justifikatu gabeko edo berari egotz dakiokkeen arrazoi batengatik, kalte-ordaina lege zedatutako ehunekoan handituko da.

Prozesu luzeetan, Aseguratzailleak, behin ezbeharren zirkunstantzia guztiak ezagutu eta baloratutakoan, likidazioak egin ditzake bukaerako diru-prestazioaren kontura.

Peritu-prozedura

Aseguratzailleak proposatu edo ordaindutako kalte-ordaina Hartzaileak eta/edo Aseguratuak onartuko ez balu, alderdiak kontraesaneko peritu-sistemari mendean jarri beharko dira, Aseguru Kontratuaren 50/1980 Legeko 104. eta 38. Artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.



POLIZAREN OINARRIZKO ARAUDIA

Aseguruaren oinarriak

Poliza hau Hartzaileak eta Aseguratuak aseguru-eskaeran jasotzen den galde-sortan egindako adierazpenetan oinarrituta hitzartzen da. Adierazpen horiek finkatzen dute Erakunde Aseguratzailerak arriskua onartzea eta baloratzea eta, ondorioz, dagokion primaren kalkulua.

Polizaren edukia eta aseguru-proposamena, egiten bada, edo hitzartutako klausulak desberdinak badira, aseguruaren Hartzaileak hilabeteko epea izango du, poliza entregatzen zaionetik kontatzen hasita, Aseguru Etxeari erreklamatzeko, desberdintasun hori konpon dezan. Epe hori amaitu eta erreklamaziorik egin ez bada, polizan ezarritakoari jarraituko zaio.

Hartzaileak eta/edo Aseguratuak aseguru-eskaeraren galde-sortako deklarazioetan erreserba, zehaztugabetasun edo egiazkotasun-faltaren bat egingo balu berak ezagutzen dituen eta arriskuaren onarpenean eta balorazioan eragina izan dezaketen zirkunstantziei buruz, ondorengo erregelak aplikatuko dira:

Legeak ezarritakoarekin bat, Aseguru Etxeak kontratua desegin ahal izango du Hartzaileari deklarazio bat zuzenduz hilabeteko epean, erreserba edo zehaztugabetasunaren berri jakiten duenetik. Aseguru Etxeak ordaindu beharko ditu, bere aldetik dolo edo erru larririk ez bada behintzat, deklarazioa egitean indarrean dagoen aseguru-aldiari dagozkion primak.

Ezbeharrak Aseguru Etxeak deklarazio hori egin baino lehenago gertatzen bada, kalte-ordaina proportzionalki murriztuko da, arriskuaren benetako tamaina ezagutuko balitz aplikatuko litzatekeen primaren eta hitzartutako primaren arteko aldearen proportzioan. Aseguruaren Hartzailearen eta/edo Aseguratuaren aldetik dolo edo erru larririk izan bada, Aseguru Etxea libre geratuko da kalte-ordaina ematek.

ASEGURU-ETXEAK ASEGURU-ESKAERAREN GALDE-SORTA EGITEN EZ BADIE EDO, EGINDA ERE, ARRISKUAREN ONARPENEAN ERAGIN DEZAKETEN ETA ARRISKUAN SARTUTA EZ DAUDEN ZIRKUNSTANTZIAK BADIRA, EZ DIRA AURREKO ARAUAK APLIKATUKO.

Aseguruaren hasiera eta iraupena

Behin Hartzaileak poliza sinatu eta hasierako prima ordaintzen duenean, polizaren estaldura berehala sartuko da indarrean, gabealdirik gabe, ESTALDURA MUGATUKO KASU BEREZIAN izan ezik. Kasu horietan 12 hilabeteko gabealdia edo estaldura-gabezia egingo da poliza indarrean jartzen denetik kontatzen hasita.

Polizako Baldintza Partikularretan aurreikusitako aldirako egingo da aseguru, eta muga-eguna iristen denean, Aseguru Hartzaileak urtaldia amaitu baino gutxienez **hilabete bat lehenago** jakinarazpen **idatzi baten bidez** Aseguru Etxeari kontraktorik adierazi ezean, **poliza automatikoki berrituko da** urtero-urtero aseguruaren efektu-dataren ondorengo urtemuga bakoitzean, berritze-urtaldi bakoitzeko prima ordainduz.

Hala ere, **Aseguru Etxeak luzapenari aurka egin diezaioko, polizaren hartzaileari idatziz jakinaraziz hasita dagoen aseguru-aldia bukatu baino 2 hilabete lehenago gutxienez.**

Kontratuaren urteko luzapen bakoitzean, Aseguratzailleak luzapenaren datan indarrean dituen tarifen arabera finkatuko da prima, batez ere Aseguratuari une horretan dagokion zenbateko aseguratuari, jarduera profesionalari eta arriskuko adin-taldeari dagokienean.

Aseguru Aseguratuak 70 urte betetzen dituen urtea amaitzean iraungiko da.

Honako kasu hauetako bat gertatzen denean ere atzeraeraginezko izaerarekin iraungiko da kontratua, baita Aseguratzailleari aurrez jakinarazten ez bazaio ere:

- ▶ Aseguratuak lan-jarduera edo jarduera profesionala uzten duenean edo langabezia- edo erretiro-egoeran geratzen denean.
- ▶ Aseguratuak jasandako ezbeharrak eragindako gaixotasuna edo istripua polizako Baldintza Partikularretan adierazitako lanbidea egiteko baliaezintasun iraunkor bihurtu dela mediku bidez frogatu daitekeen unetik aurrera.

Bi kasu horietan Aseguratzaillea behartuta dago iraungitzearen ondorioz arriskurik egon ez den aldiari dagokion ordaindutako primaren zatia Hartzaileari itzultzera.

Kontratua deuseztatzea eta eskubideak galtzea

Kontratua deuseza izango da, Legeak aurreikusitako kasuetan izan ezik, amaitzeko garaian arriskurik ez baldin badago edo ezbeharra gertatuta baldin badago.

Kalte-ordainerako eskubidea galtzen da ezbeharra Aseguratuak fede txarrez eragindakoa bada.

Primen ordainketa

Aseguruaren Hartzailea behartuta dago prima ordaintzera. Bere helbidean ordainduko du, baldin eta baldintza partikularretan beste zerbait erabakitzen ez bada.

Aseguruaren Hartzaileak kontratua gauzatzeko artekari-lana egin duen agenteari egindako prima-ordainketak Aseguratzailleari zuzenean egindakoaren ondorio berberak izango ditu.

Lehen prima, zatikatua edo zatikatu gabea, kontratua sinatutakoan izango da galdagarria. Hartzaileak ordaindu ez badu, Aseguratzailleak eskubidea du kontratua suntsitzeko edo polizan oinarritutako betearazpen bidean zor den prima ordaintzea eskatzeko, eta ezbeharrak gertatu baino lehen ordaindu ez bada, Aseguratzaillea bere betebeharretik libre geratuko da, baldin eta kontrakoa hitzartu ez bada.

Bigarren prima eta ondorengoak, zatikatuak edo zatikatu gabeak, ordaindu ez badira, Aseguratzaillearen estaldura etenda geratuko da, muga-egunetik hilabete pasatu ondoren. Aseguratzailleak ez badu ordainketa erreklamatzeko prima mugaeguneratu ondorengo sei hilabeteetan, kontratua iraungitzat emango da. Nolanahi ere, kontratua etenda dagoenean, Aseguratzailleak indarrean dagoen aldiko prima ordaintzea soilik eska dezake.

Kontratua ez bada suntsitu edo iraungi aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera, estaldura berriz ere indarrean sartuko da aseguruaren Hartzaileak prima ordaintzen duen egunetik hogeita lau ordura.

Zuzendaritzak edo legez baimendutako ordezkariak igorritako ordainagirik bakarrik behartuko dute Aseguratzaillea.

Arriskuaren aldaketak

→ Hartzaileak edo Aseguratuak, kontratua indarrean dagoen bitartean, Aseguratzailari deklaratu behar dizkiote, ahal bezain laster, **arriskua larritzen duten zirkunstantzia guztiak**, eta baita Aseguratzailleak kontratua onartu eta hobetzeko unean ezagutu izan balitu, kontratua ez gauzatzera edo Hartzailearentzako baldintza okerragoetan egitera eramango zuketean izaerakoak ere.

Kontratu honen ondorioetarako, Baldintza Partikularretan jasotako jarduera profesionala edo lan-jarduera eta hura egiteko modua —norberaren kontura edo besteren kontura— aldatzea arriskua aldatzen duten zirkunstantziak dira, eta Aseguratzailari jakinarazi behar zaizkio, ondoren deskribatuko den bezala.

Aseguru Etxeak arrisku-areagotzea onar dezake edo ez, eta honako arau hauek aplikatuko zaizkio:

- ▶ Onartzen badu, Aseguru Etxeak kontratuan behar den aldaketa egitea proposatu ahal izango dio aseguruaren Hartzaileari, arrisku-areagotzea deklaratzeko unetik hasi eta bi hilabeteko epean. Aseguruaren Hartzaileak hamabost eguneko epea izango du kontratua aldatzeko proposamen hori onartzeko edo ezesteko, proposamena jasotzen duenetik kontatzen hasita. Hartzaileak onartzen ez badu edo ezer esaten ez badu, Aseguratzailleak ahalmena izango du, epe hori bete ondoren, kontratua desegiteko Hartzaileari aurrez abisatuz eta beste hamabost eguneko epea emanez erantzun dezan; egun horiek pasatu eta hurrengo zortzi egunen barruan jakinaraziko dio Hartzaileari behin betiko kontratu-desegitea.

- ▶ Aseguratzaileak arrisku-areagotzea onartzen ez badu, kontratua eten dezake, eta Hartzaileari jakinarazi behar dio arrisku-areagotzearen berri izan eta hilabete igaro baino lehen.

Hartzaileak edo Aseguratuak Aseguratzaileari arriskua areagotu dela jakinarazi ez badiote eta ezbeharren bat gertatzen bada, Aseguratzailea bere prestazioa emateetik libre geratuko da, Hartzaileak edo Aseguratuak fede gaiztoz jokatu badute. Bestelako kasuetan, Aseguratzailearen prestazioa murriztu egingo da hitzartutako primaren eta arriskuaren benetako garrantzia ezagutu izan balitz aplikatuko litzatekeenaren arteko diferentziaren proportzioan.

Arrisku-areagotzea ez bada aseguruaren Hartzaileari edo Aseguratuari egozteko modukoa, eta Aseguru Etxeak arrisku-aldaketa onartu nahi ez badu, sorraza gabeako prima-zatia itzuli egin beharko du.

Ezbeharra gertatu baino lehen ez jakinarazitako arrisku-areagotzea aseguratuak egiten duen lan-jarduera edo jarduera profesionala norbere konturakoa izateetik besteren kontura izatekora aldatzen denean, lehen deskribatutako prestazioaren murrizketa proportzionala aplikatuko da honako hauek kontuan hartuta:

1) Ateratzen den eguneko prestazioak ezin du inolaz ere gainditu Aseguruaren jarduera profesionaleko arrisku-taldeko besteren konturako langileentzat Aseguratzaileak indarrean dituen tarifek ezarritakoa.

Halaber, eguneko prestazio aseguratuak ezin du izan Aseguratuak ezbeharra gertatu baino lehen bere lan-jardueran edo jarduera profesionalean lortutako eguneko diru-sarrerara gordinak baino handiagoa.

2) Ateratzen den eguneko prestazio hori oinarritzat hartuta, hitzartutako prima arriskuaren benetako garrantzia ezagututa aplikatuko zenera egokituko da eta, hala dagokionean, egokitutako prima berriaren eta ordaindutako primaren arteko aldea itzuliko zaio aseguruaren Hartzaileari.

Halaber, Aseguru Hartzaileak edo Aseguratuak ez dauka Aseguruaren osasun-egoeraren inguruabarren aldaketaren berri eman beharrik, edozein kasutan ez baitira arriskuaren areagotzetzat jotzen.

→ Hartzaileak edo Aseguratuak, kontratua indarrean dagoen bitartean, Aseguru Etxeari jakinarazi behar dizkiote **arriskua murrizten duten zirkunstantzia guztiak**, eta baita Aseguratzaileak kontratua onartu eta hobetzeko unean ezagutu izan balitu Hartzailearentzako baldintza hobeetan egitera eramango zuketena izateko ere.

Horrela bada, indarrean dagoen aldia amaitutakoan, Aseguratzaileak dagokion proportzioan edo zenbatekoan murriztu beharko du hurrengo prima. Bestela, aseguruaren Hartzaileak kontratua suntsitzeko eskubidea izango du, eta arriskua murriztu dela jakinarazten duenetik ordaindu beharko zukeen primaren eta ordaindu duen primaren arteko aldea jasotzekoa.

Helbide-aldaketak

Aseguruaren Hartzaileak eta, bere kasuan, Aseguratuak edo Onuradunak, Aseguratzailari jakinarazi behar diote, ahal bezain laster, Baldintza Partikularretan adierazitako helbide-aldaketa.

Eguneko sorospenaren errebalorizazioa

Alderdiek elkarrekin adostuta hitzartu ahal izango dira Baldintza Partikularretan ezarritako eguneko sorospenaren urteko errebalorizazioa eta prima, honako arau hauen arabera:

Eguneko sorospen aseguratua eta prima automatikoki handituko dira kontratuaren urteko epemuga bakoitzean, hitzartutako eta Baldintza Partikularretan adierazitako ehunekoaren arabera.

Ezbeharra izanez gero, Aseguratzailak ordaindu beharreko eguneko sorospena ezbeharraren hasieran indarrean dagoena izango da, eta ezbeharra luzatu eta sorospena errebalorizatzen bada, Aseguratzailak ez du handitu beharko eguneko sorospena errebalorizazio horren muga-egunetik aurrera.

Aseguruaren Hartzaileak eta Aseguratzailak uko egin diezaiokete errebalorizazioari kontratuaren urteko muga-egun bakoitzean. Horretarako, muga-eguna baino bi hilabete lehenago jakinarazi beharko dio beste alderdiari, eta hurrengoetarako finko geratuko dira eguneko sorospen aseguratua eta uko egin aurreko muga-eguneari ezarritako prima.

Aseguruaren konkurrentzia

Aseguruaren Hartzaileak eta, bere kasuan, Aseguratuak edo Onuradunak, Aseguratzailari jakinarazi behar dio Aseguratuari berari dagokion antzeko izaerako beste edozein aseguru egin izana.

Jakinarazpenak

- ▶ Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak kontratua gauzatzeko artekari-lana egin duen agenteari egindako jakinarazpenak Aseguratzailari zuzenean egindakoaren ondorio berberak izango ditu. Aseguru-artekari batek aseguruaren Hartzailearen edo Aseguratuaren izenean Aseguratzailari egiten dizkion jakinarazpenak aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak egindakoen ondorio berberak izango ditu, horiek aurkakoa adierazten dutenean izan ezik.
- ▶ Aseguru Etxeak aseguruaren Hartzaileari egindako jakinarazpenak baliozkotzat joko dira hark ezagutzen duen Hartzailearen azken helbidera bidalitakoak badira.

Jurisdikzioa

Aseguru-kontratu hau Espainiako legeriak arautzen du. Erreklamazioak egiteko instantziak Aseguratzailerearen Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua eta Aseguratuaren Defentsarako Mandataria dira, legez xedatutako prozeduraren arabera.

Edozein kasutan, kontratu honen ondoriozko ekintzak Espainiako jurisdikzioaren pean daude eta, horren barruan, Aseguratuaren helbideari dagokiona izango da epaile eskuduna. Kontrako edozein itun baliorik gabea izango da eta, xede horretarako, asegurua Hartzailereak, Aseguratuak edo Onuradunak helbide bat izendatuko dute Espainian jakinarazpenetarako, baldin eta euren atzerrian balego aldi baterako.

Datu pertsonalen babesa

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Legean xedatutakoari jarraituz eta Kontratu Aseguruari buruzko 50/1980 Legearekin bat etorritik, Gaixotasun Arloko aseguru-poliza kontratatzeke LA PREVISIÓN MALLORQUINA DE SEGUROS, S.A.k garatu, bete, kontrolatu eta egikaritzeko aseguratuaren datuen tratamendua eskatzen duela jakinarazten dizugu, osasun-datuak barne, eta baita zerbitzu-emaileen (mediku, osasun-zentro, ospitale eta beste erakunde edo pertsona batzuen) eta LA PREVISIÓN MALLORQUINA DE SEGUROS, S.A.aren artean adierazitako xedea betetzeko egokiak eta bereizleak diren eta gehiegizkoak ez diren datuak jakinaraztea ere. Erakundeak xede horietarako behar den informazioa eska diezaike zerbitzu-emaileei aseguratuaren osasunari eta osasun-tratamenduari buruz.

Aseguru-kontratuan oinarritutako edozein prestazio ekonomiko eskatzeko, Aseguratuak berriaz onartzen du bere datuen tratamendua egitea eta emaileen eta erakundearen arteko ondorengo komunikazioa gauzatzea.

Datuen sarbide-, zuzenketa, ezeztapen- eta aurkaritza-eskubideak gauzatzeko LA PREVISIÓN MALLORQUINA DE SEGUROS, S.A.ra idatzi behar da, Aribau kalea, 168-170, solairuartea 1.a, idatzia bertako Aholkularitza Juridikora zuzenduz. Aurreko paragrafoan azaldutako datuen tratamenduaren eta jakinarazpenaren aurka eginez gero, ezingo dira gauzatu polizaren prestazioak aurkaritzak irauten duen bitartean, Aseguru Etxeak ez dituelako kalte-ordaina kalkulatzeko eta bere aseguru-kontratuan ezarritako helburuetarako behar diren datuak.



EZOHIKO GERTAKARIEN ONDORIOZKO GALERENGATIK ASEURATUEN KONPENTSASIO PARTZUERGOAREN KALTE-ORDAINEN KLAUSULA PERTSONA-ASEGURUETAN

Urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Legezko Estatutuaren testu bateginean ezarritakoarekin bat, enpresa-erakunde publiko horren aldeko errekargua nahitaez gaineratu behar duen aseguru-kontratu baten aseguru-hartzaileak edozein erakunde aseguratzaileekin hitzartu ahal izango du ezohiko arriskuen estaldura, baldin eta erakunde aseguratzaile horrek indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen baldintzak betetzen baditu.

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordainduko ditu Espainian edo atzerrian ezohiko gertaerek sortutako ezbeharren ondoriozko kalte-ordainak, pertsonen aseguruaren kasuan, Aseguratuak bere ohiko egoitza Espainian badu eta Aseguru Hartzaileak Partzuergoaren aldeko errekarguak ordainduta baditu, ondorengo egoeretakoa bat gertatzen denean:

a) Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estalitako ezohiko arriskua erakunde aseguratzailearekin kontratatutako aseguru-polizaren babesean ez egotea.

b) Aipatutako aseguru-poliza horrek babestua egonik ere, Erakunde Aseguratzaileak ezin izatea bere betebeharririk bete, judizialki konkurtsoan dagoela deklaratu izan delako, edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak esku hartutako edo bere gain hartutako likidazio-prozedura batean dagoelako.

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak bere jarduna egokituko du aipatutako Legezko Estatutuan, Aseguru Kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legean, Ezohiko Arriskuen Aseguruaren Erregelamenduan –otsailaren 20ko 300/2004 Errege Dekretuak onetsitakoan– eta xedapen osagarrietan zehaztutakora moldatzeko.

I. LEGE-ARAUEN LABURPENA

1. Estaltzen diren ezohiko gertakariak

a) Naturako fenomeno hauek: lurrikarak eta itsasikarak, ezohiko uholdeak (itsas enbatak sortutakoak barne), sumendien erupzioak, ezohiko ekaitz ziklonikoa (barnean hartuz 120 km/h-tik gorako ezohiko haize-boladak eta tornadoak) eta gorputz sideralak eta aerolitoak erortzea.

b) Terrorismo, errebolta, sedizio, matxinada eta jende-iskanbilak direla-eta bortxaz eragindakoak.

c) Indar Armatuek edo Segurutasuneko Indar eta Kidegoek bake-garaian burututako gertaera edo ekintzak.

Fenomeno atmosferikoak eta sismikoak, sumendien erupzioenak eta gorputz sideralak erortzea Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren instantziaz ziurtatuko dira, Estatuko Meteorologia Agentziak (AEMET), Geografia Institutu Nazionalak eta gai horretan eskudunak diren gainerako erakunde publikoek egindako txostenen bidez. Izaera politikoa edo soziala duten gertaeren kasuan, edo Indar Armatuek edo Segurutasuneko Indar eta Gorputzek bake-garaian burututako gertaera edo ekintzen kasuan, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak gertakariei buruzko informazioa bildu ahal izango du jurisdikzio- eta administrazio-organo eskudunetatik.

2. Kanpoan utzitako arriskuak

- a) Aseguru Kontratuaren Legearen arabera kalte-ordainik eragiten ez dutenak.
- b) Aseguruen Kontentsazio Partzuergoaren aldeko errekargua nahitaezkoa ez duen aseguru-kontratu baten bidez aseguraturuta dauden pertsonengan sortutakoak.
- c) Gatazka armatuek eragindakoak, aurrez gerra-deklarazio ofizialik egon ez bada ere.
- d) Energia nuklearretik eratorriak, kalte nuklearrei edo material erradioaktiboengatik sortutakoei buruzko maiatzaren 27ko 12/2011 Legean ezarritakoari kalterik egin gabe.
- e) Aurreko 1. a) atalean adierazitakoez bestelako natura-fenomenoek sorturikoak, eta, bereziki, maila freatikoaren igoerak, malda-higidurek, lurren lerradura edo asentamenduak, haitz-erortzeak eta antzeko fenomenoek sorturikoak; salbuespena izango dira nabarmenki euri-uren eraginez gertaturikoak, baldin eta ur horiek inguruan ezohiko uholde-egoera sortu badute eta uholde horren garaian gertatu badira.
- f) Biltzeko eskubidea arautzen duen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoan xedatutakoari jarraituz egin diren bilera eta manifestazioetako jarduera jendetsuen ondoriozkoak, eta legezko grebetako jardueren ondoriozkoak, jarduera horiek aurreko 1.b) atalean adierazitakoaren arabera ezohiko gertakaritzat hartzen direnean izan ezik.
- g) Aseguratuak fede gaiztoz eragindakoak.
- h) Lehen prima ordaindu aurretik gertatutako ezbeharren ondoriozkoak, edo, Aseguru Kontratuaren Legean ezarritakoarekin bat, Aseguruen Kontentsazio Partzuergoaren estaldura etenda dagoenean edo asegurua azkenduta dagoenean primak ordaindu ez direlako gertatutakoen ondoriozkoak.
- i) Haien tamaina eta larritasunagatik Estatuko Gobernuak "katastrofe edo hondamen nazional" gisa kalifikatzen dituenak.

3. Estalduraren hedadura

1. Aseguru-polizetan ohiko arriskuen estaldurarako zehazten diren pertsona eta zenbateko aseguratu berberak estaliko ditu ezohiko arriskuen estaldurak.
2. Bizitza-aseguruko polizak direnean, kontratuan aurreikusitakoaren arabera eta aseguru pribatuak arautzen dituen araudiarekin bat hornidura matematikoa sortzen badute, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren estaldurak Aseguratu bakoitzari dagokion arrisku-kapitalari egingo dio erreferentzia, hau da, aseguratutako zenbatekoaren eta poliza jaulki duen Erakunde Aseguratzailleak (aipatutako araudiaren arabera) eratuta eduki behar duen hornidura matematikoaren arteko aldeari. Hornidura matematikoari dagokion zenbatekoa aipatutako Erakunde Aseguratzailleak ordainduko du.

II. KALTEEN BERRI EMATEA ASEGURUEN KONPENTSAZIO PARTZUERGOARI

1. Estalduraz Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari dagozkion kalte-ordainen eskaera Partzuergo horri zuzendutako komunikazio bidez egingo da. Komunikazio hori aseguru-hartzaileak, aseguratuak edo polizaren onuradunak egingo du, edo aurrekoen kontura eta izenean jarduten duenak, edo erakunde aseguratzailleak edo asegurua kudeatzeko esku hartu duen aseguru-bitartekariak.


2. Honela egin ahal izango da kalteen komunikazioa eta honela eskuratu ahal izango da prozedurari eta ezbeharren izapidetze-egoerari buruzko edozein informazio:

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Telefono bidezko Arreta Zentrora deituz (952 367 042 edo 902 222 665 zenbakira).

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren webgunearen bidez (www.consorseguros.es).

3. Kalteen balorazioa: aseguru legeriaren eta aseguru-polizaren arabera kalte-ordaina dagokien kalteen balorazioa Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak egingo du, eta Partzuergoa ez da lotetsita egongo arrisku arruntak estaltzen dituen erakunde aseguratzailleak egindako balorazioekin, halakorik egonez gero.
4. Kalte-ordainaren ordainketa: Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak banku-transferentzia bidez ordainduko dio kalte-ordaina aseguruaren onuradunari.

Oharrak



AUTOMOBILA

ETXEBIZITZA

AURREZKIA AURREIKUSPENA

BIZITZA

ISTRIPUAK

OSASUNA

NEGOZIOA

EGUNEKO BAJA